

## eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Aparkalekuak  
Astrabuduan

Maitane Elordui • LEIOA

Harrituta gelditu nintzan aurreko egunean, autobusean ninoala, Astrabuduan sartu ginanean. Metro geltoki ondotik pasau eta eskumara egin ebanean autobusak, arazo nahikotxo izan zituan txoferrak kale horretatik sartzeko. Bihurgunean bi kotxe egozan aparkauta egon behar ez leuen tokian. Baina, Erandio-ko auzune horretan askotan gertatzen dira horrelakoak. Izan be, bertan dagozan aparkaleku bakarrak beteta egoten dira beti, eta kaleetan barrena lekurik topetan ez dabenek bigarren iladan utzi behar izaten dabe kotxea.

Halandabe, ez litzakit zilegia irudituko udaltzainak bertara joan eta isunak ipintzen hastea. Erandioko Udaleko diru-kutxak beteta egongo lirateke, baina zelan ipiniko deusie isuna euren auzoan bertan aparketako tokirik ez daukielako kotxea bigarren iladan itzi behar izaten dabene horreei. Aparketan beste herri batetara joan behar al dira?

Horrenbeste etxebizitza barri egiteko baimena emon beharrean, aparkaleku barriak ipinteko erabagia hartu beharko leukie udal arduradunek, lur azpikoak edo lur ganekoak, arazoa konpontzeko bada, berdin-berdin. Bestela, egiten dagozan etxebizitza barri horreetan aparkalekuak ipinteko agindua emon beharko leuke alkateak. Hori eskatzeko aukerea eukiko dau Udalak, ezta?

Dana dala, azken neurri horrek ez leuke arazoa guztiz konponduko. Gitxi izaten dira euren etxe zaharra itzi eta barri batera joaten diran auzotarrak. Botetako nahiko diru ez daukie astrabuduar gehienek. Kanpotarrak izaten dira normalean etxe barrietara joaten diranak. Beraz, bardin-bardin gelditzen dira lehenagotik bertan bizi ziranak.

**OHARRA:** Ahalik eta eritxi gehienek tokia izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauanaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

Astrabuduan Erandioko beste auzo askotan baino biztanle gehiago dagozala kontutan eukita, aparkalekuen auzi horri lehentasuna emon beharko leukio Udalak. Ez da orain dala denpora gitxiko kontua. Betidanik egon dira aparketako arazoak. Beraz, bada garaia zeozer egiteko. Ganera, Bizkaibusekoek be oharutuko ziran arazoaz. Ez da lan makala autobus handi horreek Astrabuduako kaleetatik sartzeara. Aurretik kaleak estuegiak ziran, baina kotxeak ipinita are estuagoak dira.

Reala lehenengo  
mailan betiko!

Igor Perez • BILBO

Reala bigarren mailara noiz jaitsiko irrikatzen dagoz bizkaitar asko. Donostiarrak asteburuko partida galtzen dabenean be pozez ganezka egoten dira. Nik ez dot inoiz ulertuko. Non gelditu da derbietako anaitasuna edota Euskadiko selekzinoko partidetak giroa? Zer pasetan da, ba, egun batean guztiak lagunak garella eta bestearentzako kaltea baino ez dogula nahi.

Azken derbia urrun gelditu dan arren, San Mamesen entzundakoak airean dabilzt oraindino. Batez be, Reala zulotik atare ezinik dabilelako. Badakit Anoetan gauza nahiotxo entzun behar izan ditugula Athleticetako zaleok. Eta gehienetan bi taldeetako arduradunek, alkar uler-

tzen ahalegindu beharrean, gatazka gehiago piztu dabela. Eta hainbat komunikabide zer esanik ez! *Correo-k* Athletic laudatu egiten dauen bitartean, Reala iraintzen dabil eten barik. Eta aurrekoaren anaia bikia dan Gipuzkoako *Diario Vasco-k* alderantziz. Egunkari gehiago saltzeko politika izango da.

Nik argi daukat. Ez dakit neuk bezala pentsetan dabene Athleticetako zale asko egongo diran, baina nahikotxo tristetuko nintzateke Reala bigarren mailan amaitzekotan. Gure taldearen aurka jokatzene dabenean izan ezik, irabaziko dabenean esperantza daukat. Ganera, donostiarrak bigarren mailara jaistekotan non geldituko lirateke derbi horreek.

Bi taldeen arteko ezin ikusia konpontzea guztion ardura da. Klubetako arduradunek, jokalariek eta zaletuok be zeozer egin beharko genuke azken derbian San Mamesen entzun ziranak, barriro entzun behar ez izateko.

Nork saltzen deutse  
gazteei alkohola?

Edurne Bengoa • BILBO

Hamazortzi urte baino gitxiagoko ume mokoak ikusten ditut astebururo Bilboko Zazpikaleetan litroko botilak edaten. Lurretik botata ibiltene dira gaztetxoak edabe horreek bukatutakoan. Ganera, ume horreek kalean alkohola edaten ibiltetea gitxi baltiz lez, txiza egiten dabe horma eta txoko guztietan. Hainbat telebista kateetan entzun dodanez, auzi horrene ganean zorrotz jarriko dira Madrilen. Bilbon be, botilak kentzen ibiltene dira udaltzainek asteburu gauetan. Baino arazoa konpontzeko nahikoa al da hori? Edaten badabe, baten batek saltzene deutselako izango da! Batek baino gehiagok poltsikoak betetzen dagoz, gazteei alkohola salduz. Horien aurka egitea izango litzateke konponbidea.

Bihotza Donostian,  
baina neu Hontzarekin

Iñaki Arana • BILBO

Bihotza Donostian baina ni neu Bilbon izango naiz hilaren 16an. Donostian egon gura neuke gure herriko gazte abertzaleei eta preso dagozanen senitatekoei babesa emon eta eurekin gagozala argi eta garbi esateko. Baina Bilbon geratuko naiz gure artean asko diralako oraindino eurak bezain txarto dagozanak, eta eurek lez nire laguntasuna behar dabeneak. Bai, Bilbon izango naiz zapatuan San Frantziskoko taldeek Hontza zerbitzuaren alde deitu dabene manifestazioan.

Zamakola kalean tirabirak eta istiluak hasi ziranetik egon naz zerbait egiteko gogoz. Ez auzotarrene beldurak eta eskakizunak aditzen ez ditudalako, eurek be arrazoiaren zati bat badaukie eta. Baina, zoritxarrez, zati txiki bat baino ez, oraingoz. Etxean Caritas alkarteko boluntario bi dagoz, eta eurei esker ezagutzen dot drogazaleen inguruan gertatu diranak, eta ez diranak. Eurei esker dakit Udalak berba asko egin bai, baina ezer gitxi egin dauela kale gorrian bizi diranen mesedetan; eta euren ahotik entzun dodaz Zazpikaleetako merkatarien kontrako arrazoirik zentzuzkoenak.

Bilbon geratuko naz zapatuan, nahiz eta neure bihotza eta gogoa Segiko gazteekin eta Askatasuneko lagunekin egongo dan. Drogazaleak barriz ez dodaz ezagutzen. Alabak bai, lagun bi edo hiru zendu jakoz droga nazkagarriak eroanda. Sufrimendu asko egon da etxe pobre askotan, orain gu horreeri guztiorreri bizkarra emoteko. Pena bakarra zapatuko manifestazioan politiko asko izango dirala nire aurrean, arazoaren konponketa euren esku daukien arren, ezer gitxi egin dabene alkate, sailburu eta enparau. Tristeia benetan.

## asfaltoko kronikak

Gotzon Hermosilla

**G**aur bertan amaitu dot Txema Garcia-Vianaren *Sei lore* nobelea irakurten. Susa argialetxeak kaleratzen dauan guztiak kalidadearen bermea eukitzen dau, eta hau be ez da salbuespena: nobela ona da *Sei lore*, hasieratik azken orrialdera arte harriapetan zaituena, eta ganera, gure literaturan gitxi jorratutako arlo batean sartzeko ausardia eta abilezia euki dau donostiar idazleak: nobela baltzean, hain zuzen be. Honezkero, irakurleren bat (txaplata honeek inork irakurten dituala suposauta, jakina) harritu samar egongo da: «baina, baina, sailaren izena *Asfaltoko kronikak* ez da ba? Suposetan da hau sailau Bizkaiko asfaltoaren ganean jazoten danaren barri emoteko dala. Ze pintetan dau hemen Donostiako idazle batek parautako detektibe nobe-

leak?». Ez zaitez larritu eta itzi amaitzen, demonio!

Nobelearen trama guztia Bilbon eta inguruetan jazoten da: San Frantzisko kaleko putetxeak, Santurtziko portua, Txurdinagako etxe-orratzak, Zugazti-tako meategiak, metroa eta beste hainbat leku eta paisaia ezagun ageri dira liburuaren orrialdeetan barna. Gauza bat aitortu behar dot: liburuza zabaldu baizen pronto «San Frantziskoko hanturgesategi estu zikina» eta bertako giroa deskribatzen dauanean (trabetsiak, magrebiarrak) susmo txarra hartu neutsan liburuari: «Hara, zertaz idazten

## Sei lore

dauan ez dakien eta topikoetara eta errazkerietara jotene dauan beste idazle bat. Jakina, nobela baltza idatzi gura eta San Frantzisko aitatu behar, bertan inoiz egon bakoa bada be». Normalean Harlemen edo Bronxen kokatutako kontuak San Frantziskora ekarte ez jatala sinesgarri egiten, azken batean. Baina aurrera egiten dogun ginoan, Garcia-Vianak proposetan deuskun jokoa onartu ostean, susmo hori ezerezean gelditzen da, eta kontrako ondoriora ailegetan gara. Idazleak ederto ezagutzen ditu Bilboko bazterrak, eta bazterrok detektibe istorio bat kokatzeko egokiak eta sinesgarriak dira:

giro ilun eta euritsua, porlanezko geun kupidabakoa, luxuzko pub dotoreak eta krakaz beteriko tabernazuloak. Bai, bete-betean asmatu dau Garcia-Vianak. Eta ez da nobela honek daukan balio bakarra.

Aratusteak ailegau jakuz. Jaiak ez nau lar kilikatzen: kutsu kristau handiegia hartzen deusat, hur dagoan garizumaren aurreko azken kartutxoa baltiz moduan, eta, jakina, garizuman parrandea egiteko, okelea jateko, mozkortzeko edo narrutan egiteko kontzientzia problemarik ez dogunok ez deusagu grazia harriapetan derrigorrean mozorrotuta joan behar horri. Maiteminduen eguna be badator. Baina nik uste dot oraindino be Bilbo egokiagoa dala istorio baltzak kontetako, maitasun eta jai koloretsetarako baino.